



## 5. KANALAK

Orain arte dakigunez, canvas eredu 9 ataletan bananduta dago. Orain 5. atala aztertuko dugu gure enpresaren barruan, hasiera bat eman eta gero. Canvasen kanalak bezeroekin komunikatzeko eta haiekin elkareragiteko erabiltzen ditugun bitartekari gutziak dira. Honen medio, gure enpresaren balio-proposamena ezagutzera emango dugu, merkatuan zabaldu eta salmentak lortzeko. Bi kanal mota ezberdin ditzakegu: zuzena (bitartekari barik) edota zeharkako kanala (bitartekaria daukate). Mota hauetaz gain, beste bi kanal mota nabaritzen dira: Elkartutako eta kanal propioak, gure kasuan kanal propioak erabiliko ditugu gure enpresan. Errentagarrienak **kanal propioak** dira, beste enpresa batzuekin eremua ez partekatzerakoan produktutako etekin guztia guk eraman eta kudeatu ahal dugulako, eta era berean konpetentzia ezabatzeko aukera daukagulako.



**Heltzeko bidea:** Gure app-a bezeroei heltzeko hainbat komunikazio kanal erabiliko ditugu. Kanal horiek iragarkietan oinarrituta egongo dira. Gehienbat, gure app-a telebistako, aplikazioetako eta sare-sozialetako iragarkietan agertuko da.

Hobetu funtziona dezaketen **kanalak zuzenak** dira. Gure kasuan, hori nahiko konplexua da, nahiz eta gure aplikazio propioa izanez, gurekin kolaboratzen duten enpresen langileak behar ditugulako eskarien bilketa burutzeko. Gure enpresa hasten den heinean kanal hauek gureak bakarrik izaten jardun ahalko dugu, gure langile propioak kontratatuz.

Beste puntu interesgarri bat gure aplikazioa non aurkitu daitekeen azaltzea da, konkretuki, zelan erabili ahalko diren gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak. Gure aplikazioa edozein **aparatu elektronikotan** egongo da, ondorioz hauek dituen edozeinek gure aplikazioa erabiltzeko gaitasuna izango du. Guk bezeroen datuak jakin ahal ditugu, hau da, zer bilatzen duten gehien eta guk haien intereseko produktuak azaldu ahal dizkiegu. **Banaketen** atalean, gure enpresak ez du banaketarik egingo, gure aplikazioa dendekin konektatuta egongo da eta ondorioz, produktuen banaketa jarraian enpresei agertuko zaie. Adibidez, gure aplikazioaren bidez norbaitek Durangoko denda batean erosketa bat egiten badute, dendari eskaera bat egin dutela iragarkiko zaie.



Bezeroek gurekin, edo enpresako norbaitekin harreman bat eduki nahi badute; enpresakideen artean pertsonalki naiz teknologiaren bidez **komunikatuko** gara, bezeroekin arreta bermatzeko txat-a eta telefono zenbaki bat emango dugu edozein zalantza edo arazo erantzuteko eta konpontzeko.

